

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 214. alea - 2017ko urtarrila



**Hasiera hotza
eman diogu
urte berriari**

G



JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Bordatxo
JATETXEA

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

50 URTE
BURU - ZURI
Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntzak
- Gauetan traçoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

kutxabank
hemen
eta orain **k**

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95




ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA
tel.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

LENTZERIA
Azoka
MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786
Mobila: 607453357
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOAZ
20820 DEBA (Gipuzkoa)

sasoiko

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Maiatzaren 7an egingo dugu herri galdeketa”,
“Bahiako lagunei lagundu nahi?” ...



07

OSIOKO GUNEA

Debarren Ahotsa:
“Hiri plangintzako arau subsidiarioak aldatzea”



11

LITERATURA

Literatur lanak aitona-amonentzat,
Jon Alonsok irabazi du
Tene Mujika beka...



12

IRUDI GALERIA

Eguberriei eta urte berriko feriarri errepasoa, iruditan



14

B. GAZTEA

Markel Alberdi igerilari eibartarra gure institutuan, inkesta, denbora-pasak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefona: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
EUSKARA ELKARTEA Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbiet, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erredakzio taldea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa.:** 943 19 13 83

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Inprimategia: Euskalinpri


Tirada: 1.400 ale

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Esku Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide haueta

Gauza batzuk argitu nahian

Nik esandako informazio bati buruz aurreko aldizkarian Marian Larrañagak idatzitakoa irakurri eta gero, gai honi buruz gauza batzuk argitzea erabaki dut:

1.- Behin eta berriro errepikatuko dut oso garbi jakin behar dugula diru publikoa, hau da, debar guztion dirua, non eta nola erabiltzen den. Zein da proposamena, pertsonalki kasu konkretu honetan dirua ematea, edo hemendik aurrera horrelako egoerak herrian emango balira

udalak beti diru-laguntza bat ematea? Irizpideak egon behar dira, eta noski, publikoak.

2.- Giza eskubideen aldarrikapen unibertsalaren hitzarmenetan ez da agertzen persona batek bere herrian lurperatzearen nahia giza eskubide bat denik.

3.- Eta bukatzeko, esan nahi dut, Deban, zoritxarrez badaudela familia eta pertsonak oinarritzko beharrak betetzeko larri ibiltzen direnak (etxebizitza-alokai-

ria edo/eta hipoteka ezin ordaindu, argia, gasa eta uraren kontsumoak, umeen eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu ezinean daudenak, eta abar).

Azpimarratu nahi dut honek guztiak ez daukala zerikusirik sentimenduekin, eta nireak, dudarik gabe, Mbengue familiarekin daude.

Marilu Albizu, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun zinegotzia

Maiatzaren 7an egingo dugu herri galdeketa



"-Badatoz! Olatuak datoz!- entzuten zen. Haitzei helduta eusten zieten itsasoaren oldarraldiei. Gogor zetozen batzuetan, indartsuago beste batzuetan. Hala ere, atxikita eusten zioten itsaso haserreari. Baretu zen marea, ordea, aldatu ziren hondartza inguruak, harea mugitu baitzen eta erauntsiak laztan bihurtzen joan ziren. Desagertzeraino. Hala, pixkanaka, haitz eta inguruak lehortzen joan ziren eguzkipean. Tartean, haitzei irmo heltzen zieten lapek.

Egoeraren aurrean elkarri hurbilduz joan ziren lapak, heze zirauen azken haitzaren inguruan.

Urik ez zela iristen eta, eguzkipean lehortuko zirela zioten batzuek. Beste batzuek ezetz, eusteko, mareak berriz itzuliko zirela. Baziren ondoko haitzera joan nahi zutenak, esanez itsasertzetik gertuago leudekeela hala, eta olatuak errazago iritsiko liritekeela. Hurrengo mareak gogorragoak izango zirela zioenik ere bazen, eta itsasertzetik pixka bat urruntzeko eskatzen zuten. Isilik zeudenak ere bazeuden tartean, ingurukoei entzunez, beren oskoletako zirrikituetatik. Adostasun batera iritsi ziren. Adostu zuten lapa denen artean erabakiko zutela Laparin zer egin".

Hala hasten zen **azaroaren 27an** eginiko **aurkezpenean** irakurritako testua. Izenetik hasi ginen, eta bagoaz erabakitzen. Orduan aurkeztu genuen Lapari, erabakitzeko eskubidea egikaritzeko asmoz Deban herritarrek sorturiko taldea. Badugu, beraz, galdeketa dinamizatzeaz eta antolatzeaz arduratuko den taldea. Eginaren eginaz aurrera goaz.

Pauso bat gehiago eman genuen **abenduaren 23an**, Kultur Elkartearen eginiko bilera irekian **galdera erabaki** baikenuen. Bide batez, aukera hau bertara gerturatu zineten guztioi eskerrak



emateko baliatu nahi genuke Laparitik. Hona, bertaratutakoaren artean adostasun zabalena lortu zuen galdera:

Nahi al duzu egungo Euskal Herriaren status politikoa aldatu?

Eta, hala balitz, nahi duzu Euskal Estatu Independente bat?

Beraz, badugu **herri galdeketa** egingo dugun galdera, zeina bikoitza den: lehena baietz erantzunez gero, bigarrena erantzun liteke. Eta badugu galdeketarako eguna: gure eskualdeko, Debarrenako, beste herrieekin batera **maiatzaren 7an** egingo dugu.

Azkenik, gurekin kontaktuan jarri nahi izanez gero, hona hemen gure helbide elektronikoa: lapari.erabakitzera.goaz@gmail.com. Ongi etorriak zarete!

Denok batera erabakitzera goaz!

Lapari - Erabakitzeko eskubidea egikaritzearen aldeko taldea

itzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko.
a: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Bahiako lagunei lagundu nahi?

Apirilaren 16an Ekuadorren 7,8 graduko lurrikara izan zuten, eta ordutik hona 2500 erreplikatik gora sentitu dituzte. Dakizuen bezala, lurrikararen epizentroa eta ingururik kalte-tuenak Manabiko probintzian izan dira, horien artean Bahia de Caraquez, bertan 2 urtez lanean egon nintzenetik nire "bigarren etxea", han baititut lagun eta ezagun ugari. Horietako guztiek kalte materialak izan dituzte, etxea pitzatzen, etxea eta zuten guztia galtzeraino. Zorionez, bizirik daude eta bada zerbaite.

Azaroan bertan izan naiz bertatik bertara nola dauden ikusten eta oporrak pasatzen. Aitortu behar dut harritu egin nauela beraien bizitzeko indarrak, ikaragarria! Herriaren %95a sunsituduta egoteko, nahiko "ondo" dago: etxe gehienak falta dira (bota edo erori egin direlako), beste asko konpontzeko zain daude... Bien bitartean, jendea era probisionalean eraikitako "dendetan" (hemen animaliak ere ez daude hain baldintza txarretan). Izan ere, hiru eremu nagusi arriskutsuak izan arren (La Cruz, San Roque eta M^a Auxiliadora), bertako biztanleek ez dute bertatik joan nahi, ez dute Gobernuak eskaini duen laguntza bakarria onartu nahi: aterpetxe ofizialera (ejerzitoaren zaintzapean dagoen kanpamentura) joatea, Bahiatik 10 km ingurura.

Laguntzei dagokienez, erakunde eta fundazio desberdinekin lurrikarak kaltetutako familientzat etxeak eman dituzte, baina hauen onuradun izateko zenbait baldintza bete behar dira, eta horien artean dago lursail baten jabe izatea. Baina, eroritako mendi magaletako familiek zein beste lur izango dute, ba? Hor dago kokka! Hori dela eta, Bahiako "La Merced" parrokiak -garai batean Euskal Misio Taldeak izandakoa eta orain Dehonianoez zuzentzen dutena-, "Marianita Proiektua" ipini du martxan, lursail bat erosi eta dohaintzan emandako etxeekin 55 familiei bizilekua emanez, auzo berri bat eraikiz. Proiektu honetan laguntzeko dirua biltzen dabilta; bakoitzak ahal duena edo nahi duena eman dezake ondoko estekan sartuz. <http://www.hazlatirelcorazondelelundo.com/sincategorizar/proyecto-casas-bahia-caraquez-los-jardines-ecuador/>.

Halako kontuekin badakit zalantza sortzen zaigula ea dirua benetan esandako helburu horretarako erabiltzen ote den ala ez, baina kasu honetan jakin badakit hala dela. Hortaz, laguntzen baduzu, ondo. Eta bestela Ekuadorren gertatutakoaren berri izan duzu.

Itziar Arana

Sorteritik urrun hiltzeak...

Debako merkatu txikian hainbat asteartetan kide izan nuen Balla Mbengue-ren heriotzak zer pentsatua eman dit. Denoi suertatu behar zaigun gertaera da heriotza, baina sorteritik hain urrun hiltzeak barrenak astindu dizkit. Hasierako egonezinak gaintiduta, jakin-minak egin dit hozka eta Debako biztanle diren Balla zenaren hiru semeetatik Falu-rengana jo dut galdera sortarekin.

Falu, denok ikusten genuen zure aita merkatuan salmentan, baina esango al didazu noiztik zegoen Euskal Herrian eta konkretuki Deban bizitzen?

Bai, bera 1985. urtean etorri zen honuntz, eta azken bost urteak egin ditu Deban.

Zer dela eta migratu zuen?

Zortzi anai-arreba gara eta Senegalen hemen baino askoz aukera gutxiago daude bizimodua aurrera ateratzeko. Hasiera batean Azkoitira aita eta biok etorri ginen, eta 2013an nire beste bi anai, Bas eta Cheik, Debara iritsi ziren zuzenean.

Lagunak dituzu hemen? Integratuta sentitzen zara? Eta zure bi anaiaik?

Bai. Lagun asko ditut Deban, ia-ia herritar guztiak ezagutzen ditut eta egia esan, integratuta bakarrik ez, herritarrengandik maitatua ere sentitzen naiz. Zorionsu naiz Deban eta esan dezaket nire bi anaiaik ere oso pozik daudela hemen.

Zure aita joan den azaroaren 26an hil zen. Entzuna dut afrikarrek garrantzi handia ematen diozuela hilotza ikusteari,



horrela bakarrik ziurtatzen baituzue egia dela, eta horrek lasaitasuna ematen dizue...

Bai. Oso inportantea zen gure familiarentzat, eta zer esanik ez gure amarentzat aitaren gorpua Senegalera eramatea.

Garestia da mota honetako trasladoak egitea? Nola konpondu zarete?

Bai, diru asko behar da hilotz bat Euskal Herriatik Afrikaraino eramateko. Guk bakarrik ezin genuen hori lortu, baina Debako biztanleei esker lortu dugu azkenean.

Eskertzen dizut elkarrizketa hau egin izana, honen bitartez aukera baitaukat nire familia osoaren partez eskerrak emateko lagundu diguten guztiei. Hunkituta gaude jendearen portaerarekin eta eskuzabaltasunarekin. Beraiei esker lortu dugu guretzat hain garrantzitsua zena. Maila berean, eskerrak eman beharrean gaude senegaldar lagun guztiei ere, bihotz-bihotzez. Besarkada bero bat denei.

Marian Larrañaga



SalatzenDut

Pasa den abenduaren 17an, ispiluen gelan kanta herrikoiak eta euskal preso politikoeak idatzitako olerkiak entzun ahal izan genituen, zenbait herritarren ahotik.

Saioa amaitzean, argazkian ikus daitekeen bezala, hatz erakuslearekin seinalatu zen espetxe politika. Hatz erakuslearekin seinalatu zen euskal presoek ezarritako kondenen urte gehigarri bakoitza. Hatz erakuslearekin seinalatu zen dispersioa. Hatz erakuslearekin seinalatu zen larriki gaixo dauden presoek egoera.

Soro peri egunean ere, hatz erakuslearekin salatu zen Jose Antonio Galarragak jasaten duen dispersio politika. Bertan senide eta lagunek bisitaldi bakoitzean, Debatik Valladoliderako joan-etorrian egiten dituzten 708 kilometroak irudikatu ziren.

Horregatik guztiagatik hatza jaso genuen milaka lagunek urtarilaren 14an Bilbon, hatza jaso genuen elkarbizitzan, elkarriketan, errespetuan eta justizian oinarrituko den jendarte hobe bat eraikitzeko.

Hatz erakuslea jasota hemen gaudela aldarrikatuko dugu. Ikus dezatela hemen badela herri bat Giza Eskubideen alde dagoena, nirea ere baden herri bat, zurea ere baden herria.

Debako Sare



*Preso gauden euskaldunok
hormaren beste aldeko mundua
handia eta zabala dela badakigu;
hala ere, hormaren alde honetan
espetxez espetxe eramaten gaituztenean
gure mundua poltsa txiki batean
sartzen dugu:
Etxeko usain goxoa duten
arropak eta maindireak;
maite ditugun begiradak eta irribarrez
osatutako argazki-liburua;
paper eta ideal handiez betetako
karpeta gorri hori;
lagunek oparitutako liburua;
postal, gutun-azal eta maitasunez
idatziko ditugun orriz betetako
beste karpeta bat;
eta horrela ibiltzen gara gora eta behera;
bihotzean, duintasunaren harrotasuna,
eskuan, gure mundu haundia poltsa txiki batean.
Kerman Urizar de Paz (Valdemoro)*

*Elkarren kontra estuturik
Karraskatzen diren hortzak*

*oharkabean beren kasa
estutzen diren ukabilak*

*sukarraldietan bezala
izerditzen zaizkigun haragiak*

*hontzenak bezala zabal
irekitzen zaizkigun begiak*

*gorputzaren mugimendu
autonomo urduriak*

*horiek eta beste hainbat dira
goizeko seiak bitarte irits daitekeen
ate kolpe bortitzaren kezka
bizi ditugun sintomak.*

Ekhiñe Eizagirre (Fresnes)

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitadaren administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

haizea
estetika

Tif. 943 029 607
Iturkale 22. 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik

Hiri Plangintzako Arau Subsidiarioak Aldatzea:

Osioko gunea

2016ko abenduaren 28ko Udal Plenoan, Debarren Ahotsa eta PNVk osatutako taldearen proposamenari jarraiki, aho batez onartu zen Osioko hiri antolamendua aldatzea. Antolamendu berri hori laster aurkeztuko da Erakusketa Publikoan.

Onespen honekin, Osioko ibarbidea garatu eta hobetzeko bideari ekin ahalko zaio, 2009tik gelditu baitzegoen aurreko antolamendua baliogabetzen zuen sententzia batengatik. Aurreko korporazioek egoera honi irtenbidea emateko behin betiko akordioak gauzatu ez zuten, gune hau *impasse* egoeran zegoen eta horrek bere hirigintzako etorkizuna guztiz baldintzatzen zuen.

Ezker abertzaleko aurreko Udal Korporazioak 2014an egindako proposamenak gutxi gorabehera 300 etxebizitza egiteko plana hartzen zuen bere baitan: beheko solairua eta zazpi alturako (26 metro) eraikinekin, eta beheko solairua eta gehienez 11 alturakoak (36 metro) kalearen amaieran. Proposamen horren arabera, ibarbide estu horrek ia 1.000 bizilagun izango zituzkeen gaur egungoak ere kontuan hartuta.

Horrek itxuragabeko hazkundea zekarren gaur egungo etxebizitzaren kopuruan, beraz, gaur egungo Udaleko Gobernu taldeak birplanteatu egin du proiektua eta azterketa sakona egin ondoren, pentsatu du aurreikusitako biztanle kopurua handiegia dela gune horren ezaugarrietarako, zonalde estua eta laiotza baita. Horregatik guztiagatik, uste izan du kopuru hori murriztu beharra dagoela, hiri-diseinu gizatiarragoa eta atsegina lortzeko; etorkizunean bizigarritasun oneko gunea izatea ahalbidetuko duena.

Hori horrela izanik, aurreikusitako eraikigarritasuna %25 murriztu da, eta beraz, 26.912 m²-ko azalera izatetik 20.041 m² izatera pasa da azalera eraikigarria, eta etxebizitzak 300etik 225era murriztu dira gutxi gorabehera.

Lehenengo Korporazioak aurreikusitako beheko solairua eta zazpi alturako eraikinak, orain, beheko solairua eta bost alturako eraikinak izango lirateke; eta beheko solairua gehi 11 alturakoak, beheko solairua eta sei alturakoak.

Garajeentzako plaza kopurua ere handitu egin da, etxebi-



zita bakoitzeko 1,50 plaza izatetik 2,33 plaza izateraino. 518 garaje egingo dira eta garajeak eskuragai izango dira herriguneko beste kale batzuetako auzo-lagunentzako ere, aparkaleku arazoak txikituz.

Gainera, Maspe Etxea (ibai ondoan duen lorategi eta guzti), berriro sartu da Udalarentzat doaneko lagapen elementu gisa. 2009tik zegoen aurreikusita, baina ezker abertzalearen aurreko Korporazioak kendu egin zuen. Eraikin hau, modu egokian berriztatuta, kultura eta ibaiarekin lotura duten kirol ekipamenduetarako erabil daiteke, edo beste edozein erabilera eman dakiok, betiere, bere momentuan erabakiko diren erabilerak.

2014ko proposamenean ezarritako Babes Ofizialeko Etxebizitza eta Etxebizitza Tasatuen portzentajea bere horretan mantenduko da, proiektatuko diren etxeen guztizkoa kontuan hartuta: 103 BOE eta 48 ET.

Laburtuz, egin diren aldaketek zonaldea hobetu egingo dute hirigintza aldetik eta herritarren bizitza kalitatean ere hobekuntzak ekarriko dituzte.

Debarren Ahotsa

Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

**ZURE ENTZUMENA
ZAINTZEN**


Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 183/12

Olatu berdean eta mendi urdinen artean: Deba-Itziar

Gomendio batzuk



“Deba-Itziarko Zuhaitz Ikusgarriak” liburuaren aurkezpenean gomendio batzuk egin genituen eta, orain, idatziz jarri ditugu, *Berriketan* aldizkariaren irakurleek jakin ditzaten. Hasteko gure onespenerik zintzoena Artzabal bidean lorategi koloretsu polita, aguakateondo eta guzti, eraiki eta lantzen duen debar taldeari. Zorionak, benetan.

Calbeton Zumardiari buruz, zenbait aholku:

-Zuhaitzei izena eta fitxa teknikitxo bana ipintzea komeni dela dio zenbait debarrek; gutxienez Zumardian dauzkagun 17 zuhaitz mota sailletako banari. Honako hauek dira: platano arrunta, xarma, izei urdina, gerezi japoniarra, ezkia, gorostia, ginkgoa, pagoa, haritza (Gernikakoaren kimua), zumarra, makal beltza, masusta, hagina, magnolia, lizarra, indigaztaina eta astigarra.

-Hiritarren parte-hartzearen beharra ikusten da, aspaldiko urteetan egiten den inausketaren alde onak eta txarrak aztertu eta, dauden zuhaitzak nahikoa diren ala gehiago nahi ditugun erabakitzeke.

-Kiosko plazako makal beltzak bere ADNan dakar 100 urtetik aurrera adarrak askatzen joango dela. 80ko hamarkadan

askatu zuen bat eta, une honetan, erortzeko arriskuan dauka beste bat. Kontua ez da ebakitzea; zuhaitzaren edertasuna aintzat hartuz, adar arriskutsuari euskarri bat ipini eta istripuak ekiditea baizik.

-Txoriek behar baino hosto iraunkorra duten zuhaitz gutxiago daukate, negua pasatzeko. Hosto iraunkorra duten zuhaitz gehiago landatzeak luzaroago irauten lagunduko lieke habiei. Habia artifizialak ipintzea ere oso lagungarri litzaieke.

-Zer iruditzen zaizue ikasle jendeak, familiek, lagun taldeek..., geure babesean hartuko bagenitu zuhaitz bana edo bina? Horrelako ekintzak ohikoak dira beste zenbait tokitan eta zuhaitza zaintzeak natura hobeto ezagutu eta maitatzea dakar berekin.

-Hiru platano arrunt hilda dauzkagu eta beste hiru, gaitzak jota, larri.

Deba bisitariei aurkezteko sarrera ikur izan daitezkeen beste zenbait toki, debarrok estimu handian ditugunak:

-Plaza Zaharrean landare eta zuhaitzak jartzea beronen izaeraren aurka dago eta, debar askoren ustez, neurri honetako aldaketa bat egin aurretik, herritarrei beren iritzia eskatu behar zaie; eta, beraz, herritarrei galdetzeko exijitzen dugu, ea landare-ontzi

horiek hor jarraitu behar ote duten ala kendu egin behar diren. Itzuliezaguzue Plaza Zaharra, berez den bezala. Horrelako ekimenak herritarrekin hitzartu behar dira; bestela, legealdiak irauten duena iraungo dute. Bestalde, zoriontzekoa da iturriaren ur-jarioa berreskuratu izana. Hiru plazetan loreak jartzen 29.283,45 euro gastatuak (2016.07.27) (magnolioak eta mantentzea kontatu gabe) daudenez gero, plazako magnoliak kendu eta Zumardiko hiru zuhaitz hilen tokian landatzea proposatzen dugu. Zumardiko txoriek eskertuko dituzte plazako magnolien hosto iraunkorrak, zuhaitzetan negua hobeto pasatzeko aukera emango baitiete.

-Oso toki estimatuak ditugu hondartza eta Cardenas pasealekua debarrok eta bisitariek. Gure aurkezpen ikurretakoak dira; baina, gune honek dituen hutsune eta zuhaitz motek ez dute batere hobetzen ez bere bioaniztasuna ez estetika. Berau hobetzeko modua planteatzera bultzatu behar gaitu horrek. Adibidez, ondo etorriko liriteke hemen hotzari, haizeari eta gazitasunari jasankor zaizkion milazkak eta palmondoak.

-Marinel kaleko urkiak erdipurdi daude. Badaude lau tarte huts urkiak

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



LEHEN MAILAKOA: OSIO AUZOA

Berehala erantzun beharreko egoeran dago, eta denbora gehiegi darama horrela. Auzo alde horrek duen berezko hezetasunak eta legealdi batean baino gehiagotan agintaritzak opa izan dion arreta eskasak itsustu egin dute auzo hau. Auzotar bakoitza, ahal izan duen neurrian, hezetasun-kengailu baten edo gehiagoren jabe egin da, etxean eroso samar... bizi ahal izateko. Itxura denez, auzotarrek, elkartuta, zerbait egiten ez badute, egoera honek mugarik gabe iraun lezake.



galdu dituztelako: 2 zenbakiko txaletaren aurrean hiru, eta 1 zenbakiko txaletaren aurrean bat. Ondo legoke birlandatzea.

-Arrinda Pasealekua erne egoteko eskatzen ari zaigu, Euskotrenen lehen proposamena dela eta; trenbide berriak zubitik pasonibelera arteko zuhaitzak botako lizkiguke eta. Ez da onartzekoa geltoki ondoko trenbidea kendu eta ordezko bat eraikitzea, horretarako zuhaitz mordo bat botata.

Gipuzkoako Aldundiari galdetzekotan gaude ea Pagatzako eta Olabe/Lizarretako pagoak Gipuzkoako Zuhaitz Ikusgarri izendatuak izateko behar diren berezitasunen jabe ote diren. Murgi Zaharreko artea eta beste batzuk ere izen hori eta horri dagokion babesa merezi ahal izateko ikusgarritasuna dutenak dira.

Eta, artikulua gure herria edertzeari buruz doanez, pozten gaitu Deba-Mutriku

zubiaren 150. urteurrenean *-Berriketan-*en (2016, 206:5) eta *Zubiak Eraikitzen-*en (2016-06-11)- egindako gomendioa Udalak aintzat hartu izanak, 2017rako bere egitasmoan, zubian ageri diren hodiak kentzea aurreikusi baitu. Damurik, ez min eta ez gozo joan zitzaigun iazko urtean Calbeton Zumardiaren 150. urteurrena.

Azken gomendioa. Miramar Hotelak agerian utzitako pareta surfista horma-irudiak dotoretu duen bezala, ondo legoke horma-irudi lehiaketa bat egitea Simon Berasaluze plazaren gaineko pareta hutsa dotore janzteko. Jendea animatzeko, hara hemen (eskumako zutabeen) lehen proposamenak.

Jose Luis Albizu eta Lukax Dorronsoro

**Testu honen titularreko hitzak Kirmen Uriberenak dira.*




SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Entresna Registrada Nº 2 / 05 / 049
NIVEL 2

Literatur lanak aitona-amonentzat

Eguna baino lehen etorri zait niri Olentzero.
Hogeita zortzi opari eman dizkit eskura.
Hogeita zortzi orri,
txukun idatziak denak.
Aitona-amonei gutunak direla dio lehiaketaren izenak.
Atsegin handiz irakurri ditudan orri horietako bakoitzean,
ordea, gutun arrunt bat baino zerbait gehiago irakurri dut:
Hogeita zortzi maitasun istorio polit, hunkigarri;
haur izateari utzi eta
gaztaroaren ataka zeharkatzen ari diren hogeita zortzi biloba,
beren aitona-amonekin bizi izan duten
maitasunezko konplizitatearen historia kontatzen.
Bizitzako bi aro mottelenean arteko historia.
Zahartzeak indargabetu egiten gaitu, gauzaez;
haurrak, kimu berri biguna denez, zaintza samurra du beharrezko.



Helduen indar oparoak gutxiesten eta
batzuetan alboratzen ote dituzten sentsazioa daukate.
Haurrek eta zaharrek
lana emateko bestetarako ez dute balio, dirudienez.
Baina, esperientziak eta jakin-minak
haurrak eta zaharrek elkarrengana biltzen ditu,
bien maitasun beharra eta ahalmena elikatuz.

Lukax Dorronsoro

1. saria: "Aitona maitea"

Aitonatxo! Zurekin gogoratzen naiz biok
batera daukagun argazki polit hura ikustean!

Zutaz gogoratzen naizen bakoitzean negar
egiten dut, baina biok batera pasatu genituen
momentu ederretan pentsatzean irribarra irteten
zait. Zein momentu ederrak! Oso ondo pasatzen
nuen zure ondoan barrez biok jolasean algaraka.

Badakizu asko maite zaitudala eta bihotzez
diotsut ez dagoela, ez dela egongo eta ez zegoela
horrelako aitona-amonarik eta nik badakit ez dela egongo
inoiz beste bat zure lekuan (ez delako zu bezalako
inor existitzen!).

Beti izango zara nire bihotzean eta ez pentsa
segundo batez ere ahazten zaitudanak. Niretzako
dena izan zinen, zara eta izango zara, hazten nai-
zenezan zu bezalako izan nahi dut: atsegin,
bihotz onekoa, maitagarria, eskuzabala...

Urte asko pasatu dira hil zinenetik baina

oraindik buruan zaitut, ezin zaitut ahaztu eta
zorionekoa naiz horretxegatik.

Zorte handikoa naiz zu ezagutu zintudalako
eta zuk hezi ninduzulako, zurekin ikasi ere egin
nuen eta horregatik ez dago ni baino pertsona
zorionsuagorik mundu honetan.

Etxean denok botatzen zaitugu faltan, baina
txakurrak ere!

Zure emazteak, hau da nire amonak, oraindik
badu noizbait itzuliko zaren esperantza, eta nik
ere bai. Izekok esaten zuen orain etxeko txakurra-
ren gorputz barruan zaudela; baina nik ez dakit
egia den. Nik pentsatzen dut berriz jaiozten dela
hil ondoren eta urte batzuk eta gero berriro mun-
dura itzultzen zarela, baina noiz? Zenbat urte?
Galdera horiek ezin dizkit inortxok ere erantzun,
baina nire buruak bai.

Zuk beti esaten zenuen: "zure barrenean
begiratzen baduzu erantzuna bertan duzu";

baina, batzuetan oso zaila izaten da erantzuna
nondik dabilen asmatzea; batzuetan ematen du
nire ondoan zaudela eta nik zu hor zaudela sen-
tiaraztea nahi duzula, zeren behin baino gehiago-
tan gertatu izan zait lagunekin jolasean egon eta
zure ahotsa entzutea niri hitz egiten. Adibidez,
harrapaketatik genbiltzan batean, hauxe entzun
nuen: "Jare, ezkerretik dator Olatz eta bera da
harrapatzailea". Nik ezin nuen sinetsi. Lagunei
galdetu nien ea beraiek zerbait entzun zuten,
baina beraiek "ezetz!" erantzun zuten.

Ordutik aurrera gehiagotan sentitu zaitut
nire ondoan, eta orain ere gertu zaudela senti-
tzen dut. Badakit idazten ari naizena irakurtzen
zaudela edo irakurriko duzula.

MAITE ZAITUT!!! (igual gehiegi maite zai-
tut baina...)

Jare Bengoa

2. saria: "Direnak direlako"

Aitona-amonarik ez edukitzea ez litzaidake
batere gustatuko. Aitona-amonarik ez banu...
Nork emango zizkidan hamar muxu gutxienez
egunean? Nork kontatuko zizkidan bera txikia
zeneko istorioak? Nork emango zidan igandetako
paga? Nor egongo zen bere besaulkian eserita,
telebista ikusten egun osoa? Nork hitz egingo
zidan "miliari" buruz? Nork prestatuko zidan
janaria? Nork behartuta joango nintzen mezeta-
ra? Baina garrantzitsuena: nork aterako zidan
irribarre bat triste nagoenean? Nork?

Nire bizitza guztiz desberdina izango litzate-

ke aitona-amonarik ez banu. Seguruenik, ez nin-
tzateke hain zorionsua izango haiek ez banitu.

Badakit ez diedala askotan "maite zaitut"
edo "eskerrik asko" bat esaten; baina, nahiz eta ez
esan, badakite asko maite ditudala eta beraiek
niregatik egin dutenarengatik oso esker onez
nagoela.

Ez diet askotan "barkatu" ere esaten, nahiz
eta esan behar. Barkamena eskatu nahiko nieke
beraiek bisitatzerako ez joateagatik, beraiek ni ikus-
teko daukaten ilusio guztia kentzeagatik,
"pesau" batzuk direla esateagatik (nahiz eta ez
izan), lagunekin nagoenean, kalean ikusten ditu-

danean ez saldatzeagatik eta beste gauza gehia-
gorengatik: Barkatu.

Guri haiek ez zaizkigula axola ematen duen
arren, asko estimatzen ditugu, guretzat oso
garrantzitsuak dira. "Zer egingo nuke haiek
gabe?", galdetzen diogu sarritan geure buruari.

Beldur bat ere badugu, munstroak eta sorginak
baino okerragoa: haiek gabe bizitzea. Hori da gure
beldur nagusia, horrek jaten gaitu barrutik, horrek
aterarazten digu malkoa. Horrek beldurtzen gaitu.

Aitona-amona guztiei "eskerrik asko" bat
esaten diet, direna direlako: Eskerrik asko!

Irati de Anta

3. saria: "Zure muxuak dastatzeko"

5 urte luze eta triste pasa dira. 5 urte negarti eta tentsiodun. Hainbeste denbora zu gabe, aitona. Urte horiek oso motel joan dira, zure muxurik gabe, zure besarkadarik gabe, zure aholku eta istorio zaharrik gabe... Oso gogorra egin zaigu neuri eta familia osoari, zu gabe egonda, burua jaso eta aurrera egitea.

Badakit oso txikia nintzela, ez nekiela bizi-tzako gauzak apreziatzen, eta ez nintzela gauza askotaz ohartzen, baina maite nituen gauzez bai. Horregatik zaitut gogoan gau ilun, bakarti eta isil honetan.

Zerura joan zinen momentuan, nik 7 urte besterik ez nituen. Nahiko arraroa izan zen. Oroitzapen horiek gogoan ditut:

Amarekin kalean nenbilen, beti bezain alai eta belarririk belarrirainoko irribarre zabal eta eder batekin. Egun polita zen, txoriak abesten ari ziren. Baina norbaitek amari telefonora deitu zion. Beste aldetik hizketan zegoen ahots ozendun gizona berri txar bat kontatzen ari zela zirudien. Amak eskutik heldu eta korrika eraman ninduen etxera. Izugarritzko panorama zegoen etxean. Neure gurasoak negarrez eta ni eta nire ahizpa ezer ere ulertu ezinik. Orduan, berri txarra kontatu ziguten. Momentu hori gogorra izan zen. Lantza batekin bihotza zeharkatu eta bi zatitan apurtuko balitzait bezala. Negarrez iraun nuen gau osoa. Zutaz pentsatzen, zutaz amets egiten...

Badakit denbora asko pasatu dela eta, handia naizenez, gogorra izan behar naizela. Baina ez, ni ez naiz horrelakoa. Negar egin behar denean, negar egiten dut, eta horretan ari naiz, neure oheko izarak ibai bilakarazten begietatik erortzen zaizkidan malko lodi horiekin.

Eta amona zer? Amona orain segur aski otoitz egiten ariko da, egunen batean zure aldamenean egoteko. Lehengo astean, bisita egitera joan nintzaionean, zuen arteko istorio eder bat kontatu zidan. Negarrez hasi zen, eta berarekin batera neu ere bai. Faltan botatzen du gizon ilezuri, baxu eta egunero txapela eramaten zuena. Beti txisteak kontatzen zebilena eta irribarre handi bat zuena. Hau da, faltan botatzen zaitu zu.

Espero dut egunen batean berriz ikustea; zure besarkada bat sentitzeko, kontatu dizkizadun ehun eta bat istorio horiek berriro ere entzuteko eta gehienbat zure muxuak dastatzeko.

Zauden lekuan zaudela, maite zaitut, AITONA.

June Sudupe

Jon Alonsok irabazi du Tene Mujika beka, "Naparra" kasuaz idazteko

Jon Alonso idazle iruñearrak irabazi du aurtengo Tene Mujika beka, Jose Migel Etxeberria "Naparra"ren kasua aztertzeko egitasmo batekin.

Euskal Herriko historia hurbilaz idazteko ez-fikziozko proiektuak sartzien ditu Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolaturiko beka honek. Aurten aurkeztutako proiektuen artean Alonsorena eman du irabazletzat Alberto Barandiaran, Idurre Eskisabel eta Elixabete Garmendiak osatutako epaimahaiak, eta orain urtebeteko epea

izango du itzultzaileak lana burutzeko, gero liburu gisa argitara dadin.

"Errelatoaren borroka" gain-gainean dugula eta hori saihesterik ez daukagula dio Alonsok bere proiektuaren aurkezpenean, ondoren bere asmoa adierazteko: bere belaunaldiak gatazkaren gorabeherak nola bizi izan dituen kontatzea, zintzoki eta autokritikari ihes egin gabe, eta horretarako Jose Migel Etxeberria "Naparra" desagertuaren kasua izango du kontaketa ardatza.

"Deba 100 hitzetan" lehiaketak baditu irabazleak

21 idazlan euskaraz eta 36 gaztelaniaz; 57 literatur lan guztira. Horixe da Debako Udalak eta Cardenas Fundazioak antolatutako "Deba 100 hitzetan" literatura lehiaketak izan duen erantzuna.

Udaleko Kultura sailak urtarrilaren 11n jakinarazi zituen irabazleen sariak. **Euskarazko lanen artean**, Naiara Zubimendi Zubillagak (Zumaia) lortu du lehenengo saria -500 euro-, "Talaia" izenburuko lanarekin, eta Marta Ortiz Mateorentzat (Madril) izan da bigarren saria, 200 eurokoa. Estibaliz Beltran de Herediak, Amaia Zinkunegik eta Eider Zulaikak osatu dute epaimahaia.


"Deba eta zezenak. Milaka urtetako harremana" liburua kaleratu du Eduardo Garcíak

Eduardo Garcíak "Deba eta zezenak. Milaka urtetako harremana. Deba y los toros. Una relación milenaria" izenburuko liburua aurkeztu zuen joan den urtarrilaren 5ean Ozio Bide elkartearen.

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako 544 orrialdeko argitalpena da Garcíarena. Autoreak historian atzera egin eta era askotako loturak aurkitu ditu Debako herriaren eta zezenen artean. Gai hori lantzeaz gain, zezenekiko harremanaren bidez herriaren historia-ri ere egiten dio errepasoa bere lanak.


M^a Antonia Manzano Presak (Madril) lortu du lehen saria **gaztelaniaz idatzitako kategorian** -"Quemando una ramita" lanarekin-, eta Maddi Echeverria Cruceleguiren (Donostia) lanari eman dio bigarren saria Jesus Mari Etxezarretak, Patxi Aizpitartek eta Alex Turrillasek osatutako epaimahaiak. Bi sarituek 500 eta 200 euro irabazi dituzte, hurrenez hurren.

"Deba 100 hitzetan" lehiaketaren hirugarren edizioa izan da aurtengoa. Santa Katalinarekin zerikusia duten idazlanak aurkeztu behar izan dituzte parte-hartzaileek, betiere 100 hitz baino gehiago ezin erabilia.



Debako Turismo Bulegoan eros daiteke liburua, 30 euroan.





2017ko urtarrila
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

BERRIKETAN GAZTEA

Markel Alberdi igerilari eibartarra, gure institutuan

Markel Alberdi igerilariak 4.mailako ikasleei hitzaldi bat eman zien abenduaren 15ean. Eibartarra Brasilgo Joko Olinpikoetan izan zen. Libre estiloko 100 metroko Estatuko marka zuenez, Rion 4x100 erreleboko proban parte hartu zuen.

Markel Alberdi bere kirol esperientziari eta bizipenei buruz hitz egitera etorri zen gure institutura. Txikitatik, lagunekin futbolearen, saskibaloian, eskubaloian... jokatzen zuen; baina, denbora pasa ahala, igeriketarako zaletasuna gero eta handiagoa zuen. Batxilergoa bukatu eta gero, Donostiara joan zen, ingeniarietza mekanikoa ikastera. Bertan ikasten zegoen bitartean, bertako igerilekuan entrenatzen zen. Eta, poliki-poliki, bere bizitzan kirol hori ikasketak baino garrantzia handiagoa hartzen joan zen.

Goizeko seietan esnatzen zen, zazpitan igerilekuan egoteko. Eta entrenamenduak berandu bukatzen zituen, bere buruari galdera bat egin zion: "unibertsita-



tera joan ala ez". Karrerako hirugarren urtean zegoenean, igeriketa urte batez uztea erabaki zuen, ikasketetan zentratzeko. Baina entrenatzaileari hitz eman zion hurrengo urtean jarraituko zuela eta Espainiako bost onenen artean izango zela.

Agindutakoa bete zuen. Eta lan handia egin ondoren, 2013anartzelona Munduko Txapelketan hartu zuen parte. Estatu mailan, Espainiako Txapelketan bigarren postuan geratu zen. Orduan, Madrilgo zentro espezializatu batean sartu zen, bere igeriketa-teknikak hob-

tzeko. Garai horretan, bere entrenatzaile poloniarren laguntzaz, Espainiako errekorra lortu zuen.

2014an ikasi zuen, lana gogor egin arren, nahi zuen guztia ezin zuela lortu, Berlinen jokaturako Europako Txapelketan azkena gelditu baitzen.

Bere helburuetako bat Olinpiadetan parte hartzea zenez, askoz gehiago entrenatzen hasi zen, Riora joateko behar zuen marka lortzeko. Baina helburu honek ondorio latzak ekarri zizkion: lo gutxi egiten zuen, depresio batean jausi zen... Baina, azkenean, arazoak gainditu eta, Britainia Handiak 4x100 erreleboko proban parte hartzeari uko egin zionez, Olinpiadetara joan zen eta proba horretan hartu zuen parte. Bere helburua lortu zuen eta, Olinpiadetara joan baino lehen, bere idoloak zirenak orain bere lagunak dira. Hitzaldia amaiara eman zion berak tatuatuta daukan esapide bat esanez:

"Ezina, ekinez egina".

Euskararen Eguna ospatu genuen Mendatan

Euskararen Eguna abenduaren 3an ospatzen da. Aurten larunbata izanik, gure ikastetxean ostiralean, abenduaren 2an, ospatu zen. Ekintzak goizean zehar burutu zituzten ikasleek. Honako hauek izan ziren:

4.mailako ikasleek lehen eta bigarren orduetan, binaka jarrita, bi lan egin zituzten: marrazki bat, gero ikastetxeko hormetan mural bat marrazteko, eta poema bat. Lehiaketetako irabazleak ondorengo hauek izan ziren: poema lehiaketan Iñaki Beasain eta Aitor Arakistain. Saria: Debako dendetan erabiltzeko 20 euroko bono bana. Muralerako diseinuaren lehiaketan hutsik geratu zen saria.

3.mailakoek, hirugarren eta laugarren orduetan, pegatinak



egin zituzten eta poema bat idatzi zuten. Poema lehiaketan Julen Perez de Albeniz izan zen irabazlea. Pegatina diseinuko lehiaketako irabazleak Irati Martin eta Haritz Aperibay izan ziren. Saria ikasketak bidaiako materiala izan zen.

Goizeko bosgarren eta seigarren orduetan, lehen eta bigarren mailako ikasleek burutu zituzten ekintzak. Bigarren mailakoek "Badakit" jokoak egin zuten eta, ondoren, euskarari buruzko kartelak. Irabazleak Javier Garcia eta Aimar Oruesagasti izan ziren (ikasketak bidaiako materiala lortu zuten). Lehenengo mailakoek, bakarka, liburumarkatzaile desberdinak diseinatu zituzten. Irabazlea Jon Movellan izan zen eta ikasketak bidaiako materiala lortu zuen.



ELKARRIZKETA

BELDUR BARIK Debako lehiaketako irabazleak

**“Aste bat
behar izan genuen
bideoa grabatzeko”**

Beldur Barik indarkeria sexistaren aurkako programaren barruan herri mailan antolatu zen lehiaketako irabazleei egin diegu elkarrizketa oraingo honetan. Markel Lizaso, Elene Gomez, Rebeca Arroyo, Olaia Gorriti, Maider Almortza eta Elena Perezekin aritu gara solasean.

Zer dela eta erabaki zenuten lehiaketa honetan parte hartzea?

Alde batetik, gaia interesgarria zelako eta, bestetik, dirua irabazi nahi genuelako, bidaia bat egin ahal izateko.

Lehiaketan parte hartzen duzuen lehenengo urtea al da hau?

Ez, iazko edizioan bigarren postuan gelditu ginen.

Espero al zenuten irabaztea?

Ez, beste bideoak ondo zeudelako.

Lehiakortasuna egon al da parte-hartzaileen artean?

Bai, handia, beste talde batzuek irabaziko zutela pentsatzen genuen.

Zenbat talde aritu dira lehiaketa guztira?

Lau taldek parte hartu zuten.

Egindako bideoan zer erakutsi nahi zenuten?

Matxismoaren aurka denok parte hartu behar dugula eta matxismorik gabeko mundu bat sor daitekeela.

Zenbat denbora pasatu zenuten bideoa editatzen?

Aste oso bat, gutxi gorabehera.

Laguntza behar izan al zenuten grabatzeko?

Ez, ez genuen grabatzeko laguntzarik behar izan.

Nola bururatu zitzaizuen bideoa egiteko ideia?

Bat-batean, momentuan etorri zitzaigun.

Datorren urtean parte hartzeko asmorik baduzue?

Bai, noski! Berrito irabazteko!

INDARKERIA SEXISTA

Beldur Barik indarkeria sexistaren aurkako programaren barruan egin zen lehiaketa gure ikas-
tetxeko ikasle batzuek irabazi zuten, programa horri buruzko galderak egin dizkiegu biga-
rren mailako ikasleei, gai horri buruz zer iritzirik daukaten jakiteko:

- 1.- Parte hartu al zenuen Beldur Barik lehiaketan? Hala bada, zeri buruzko lana egin zenuen?
- 2.- Zuen ustez zein da Beldur Barik programaren helburua?
- 3.- Zer iritzirik duzue helburu horri buruz?
- 4.- Ba al dakizu zer den "matxismoa"? Eta "feminismoa"?
- 5.- Gertuko norbaitek jasan al ditu tratatu txarrak?
- 6.- Zer esango zenioke tratatu txarrak jasan dituen norbaiti? Eta tratatu txar horiek eragin dituenari?
- 7.- Zuk zer eragingo zenuke halako egoera batean?



**Paula
del Olmo**

- 1.- Ez, azkenean ez dut parte hartu.
- 2.- Eraso sexistarik ez egotea.
- 3.- Ondo iruditzen zait bideoak egitea, baina kontrolatu egin behar dira esaten dituzten hitzak, inor identifikatuta ez sentitzeko.
- 4.- Mutilek neskek gutxietea.
- 5.- Bai.
- 6.- Salatu dezala. Bestea errespetatzeko eskatuko nioke.
- 7.- Laguntza eskatu ingurukoei.



Andoni Orio

- 1.- Ez, ez dut parte hartu.
- 2.- Matxismoa gelditzea.
- 3.- Ondo iruditzen zait.
- 4.- Mutilek neskek baino gehiago direla sentitzea. Neskek mutilek baino gehiago direla sentitzea.
- 5.- Ez.
- 6.- Besteak salatu ditzala, eta eragileak atxilotu ditzatela.
- 7.- Gurasoei esan.



**Ager
Aizpurua**

- 1.- Ez dut parte hartu.
- 2.- Jendeak bideoak egitea, matxismoa gelditzeko asmoarekin.
- 3.- Ados nago.
- 4.- Ez dakit... Neskek mutilek baino gehiago direla sentitzea.
- 5.- Nik dakidala ez.
- 6.- Kasurik ez egiteko, gelditzeko.
- 7.- Kontatu egingo nuke.



**Itsasne
Osa**

- 1.- Ez dut parte hartu.
- 2.- Matxismoa gelditzea du helburu.
- 3.- Ondo dagoela iruditzen zait.
- 4.- Mutilek neskek baino gehiago direla sentitzea. Neskek mutilek baino gehiago direla sentitzea.
- 5.- Ez.
- 6.- Salaketa jarri dezala. Gehiago ez dezala egin.
- 7.- Gurasoei kontatuko nioke.



**Alaitz
Albizu**

- 1.- Bai, gure artean eduki ditugun arazoengatik.
- 2.- Jendeak bideoak egitea, matxismoa gelditzeko asmoarekin.
- 3.- Ados nago, matxismo gutxiago egotea delako helburua.
- 4.- Bai, neskeganako arazoak. Bai, berdintasuna.
- 5.- Nik dakidala, ez.
- 6.- Kontatu egin beharko lukeela. Ez dezala egin.
- 7.- Kontatu egingo nuke.



**Enaitz
Goikoetxea**

- 1.- Ez dut parte hartu.
- 2.- Berdintasuna egotea.
- 3.- Ondo dagoela.
- 4.- Bai. Neskeganako arazoak. Bai, berdintasuna.
- 5.- Ez.
- 6.- Lasai egoteko eta dena gurasoei kontatzeko. Ez egiteko.
- 7.- Salatu egingo nuke.

EGILEAK: Eneko Arriola, Nerea Sanz, Intza Sodupe eta Eider Perez



DENBORA-PASAK

SUDOKUA

				2			7
2		9	6				
1		8	4				
	9		1	6			
	5	6				9	3
				4	5		8
				6	1		5
				1	3		9
9			2				



LABIRINTOA



laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia
Maria Perez
Maite Ramos
Nerea Sanz
Intza Sudupe
Eneko Arriola

Jone Gomez
Janire Lopetegi
Eider Perez
Irene Ruiz
Maider Almortza
Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

AGENDA

URTARRILAK 27, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

-21:00. **"Euskal balezaleen triskantza"** (mokadua, dokumentalaren emanaldia eta solasaldia), Elorrixako soziedadean. Itziarko Auzo Udalaren ekimenez antolatutako hitzordua.

URTARRILAK 28, LARUNBATA

-11:00. **Geoparkeko itsas hondoak eta flysch zaharrena** ezagutzeko bisita gidatua. Ezinbestekoa da alde zaurerik erreserba egitea. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.com.

OTSAILAK 3, OSTIRALA

-San Blas Eguna.

OTSAILAK 4, LARUNBATA

-Santa Ageda bezpera.

OTSAILAK 5, IGANDEA

-12:00. **Bisita gidatua** egingo da Deban, "Geoparkeko Herriak" izenburupean antolatzen diren irteeren baitan. Ibilbide kulturala izango da, bisitariak itsas tradizioa, kultura eta historia ezagutzeko aukera izan dezaten. Ezinbestekoa da alde zaurerik erreserba egitea. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.com.

OTSAILAK 8 eta 15, ASTEAZKENAK

-16:00. **Erorikoak prebenitzeko tailerra,** Agirre jauregian. Saio teoriko-praktikoa, 64 urtetik gorakoei eta euren senide nahiz zaintzaileei zuzenduta. Izen-ematea eta informazioa: osasun-zentroan (943 19 24 24) edota Udaleko gizarte-zerbitzuetan (943 19 29 23).

OTSAILAK 11, LARUNBATA

-Talo Eguna Lasturren.

-11:00. **Geoparkeko itsas hondoak eta flysch zaharrena** ezagutzeko bisita gidatua. Ezinbestekoa da alde zaurerik erreserba egitea. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.com.

OTSAILAK 12, IGANDEA

-**Ipuin kontaketa.** Agirre jauregiko ispi-luen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

OTSAILAK 19, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta: Arrola-Korostiola-Legazpi.

OTSAILAK 25, LARUNBATA

-10:30. **Geoparkeko bisita gidatua Lasturko plazan.** Errota, taloak eta herri-jolasak familia osoarentzat. Ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea. Informazio gehiagorako: www.geoparkea.com.

Literatur lehiaketak

Patxi Aldabaldetrecuren omenezko bekaren VIII. deialdia egin du Debako Kultur Elkartek. Debabarreneko historiarekin, arlo sozio-kulturalarekin edota naturarekin zerikusia duten lanen ikerkuntzara bideratzeko helburuz antolatzen da beka hau eta lan sari-tuak "Deba Bilduma"-ren baitan argitaratuko dira. Lanak aurkezteko epea otsailaren 21ean bukatuko da eta 4.000 euroko saria banatuko dute. Informazio gehiagorako, jo zuzenean Debako Kultur Elkartera.



IX. Elkar Ilustrazio eta Ipuin

Lehiaketa abian dago, haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuarekin. Horretarako hiru modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, ilustrazioak ipuin bilakatu besteei eta hirugarren modalitatean komikia edo bineta sortu beharko dute lehiakideek, "Euskal Herriaren historia" ardatz hartuta. Oinarriak: www.elkar.eus atarian.



Ikastaroak KZgunean

KZguneak arratsaldeko ordutegia izango du otsailean (16:00-20:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: oinarritzko interneta, software librea, sare sozialak, irudia, Google Apps, smartphoneak eta tableta... Izena emateko edo informazio gehiagorako: kontsultatu www.kzgunea.eus ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **otsailak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 1, 2, 17, 18, 19.**



22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 4 eta 11

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 28 eta otsailak 18

9:30 - 13:30



Argazkilaria Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko
erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



English Academy NORTH STREET ENGLISH

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba
rhorton4@yahoo.es

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206

Tel. faxa: 943 191 774

Hondartza, 10 - behea

20820 DEBA (Gipuzkoa)

mikeliturgintza@euskalnet.net

www.mikeliturgintza.com



ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617

Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482



SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso Autozerbitzua

Lernedi kalea, 21

Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea Berriketan aldizkarian!



943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3

Tlfnoa.: 943 191 776

20820 DEBA

GENOVEVA Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Seven Clovers Irish pub

943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

DEBATIK APIRILAREN 5EAN IGAROKO DA KORRIKA
Otsailean hasiko da lanean herriko batzordea.
Animatu eta zatoz zu ere zure ekarpena egitera! Adi deialdiei!



LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK
euskara klaseak • clases de euskera



16-17 IKASTURTEA

Matrikulaldia zabalik

Izena emateko epea
otsailaren 10era arte.

Langabetu, ikasle eta gurasoek
MATRIKULA ERDIA

Bekatzeko sistema ikasturte bukaeran

Etor zaitez eta informazio
guztia emango dizugu.

DEBA: 10:00 – 12:00 / 15:00 - 20:00

DEBABA UDAL EUSKALTEGIA

Iifar kalea, 12 – Tel.: 943 192 236

udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus